

## **Abian 'Irakurri, gozatu eta oparitu' irakurletasuna bultzatzeko egitasmoa**

Liburuaren Nazioarteko Egunean, gaur, hilak 23, abiatzen da 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren zazpigarren edizioa. Euskal Herri osoko 24 herritan gauzatuko da, iaz baino 9 herri gehiagotan, eta ekainaren 30era arte luzatuko da.

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, Euskara Elkarteak, udal liburutegiak eta liburu dendak elkarlanean jarri dira berriz.

Euskaltzaleen topaguneak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoaren zazpigarren edizioa jarri du martxan, zenbait euskara elkartek, udal liburutegi eta liburu dendarekin batera, eta hainbat udal, Eusko Jaurlaritzaren Kultura saila zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena, gaur, apirilak 23 abiatzen da, Liburuaren Nazioarteko Egunean, eta Euskal Herri osoko 24 herritan egongo da ekainaren 30era arte. Irakurzaletasuna bultzatzea xede duen egitasmo honek herritarra euskarazko liburuak irakurtzera animatu nahi ditu, irakurtzearen alde atsegina eta gozagarria azpimarratuz. Aurten gorakada nabarmena izan du egitasmoak, iaz baino 9 herri gehiagotan jarriko baita martxan.

Egitasmoa tokian tokiko euskaldunon Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein libururen erosketaren %25a ordaintzeko aukera izango dugu, Ordizian %50a euskaldunon elkartearren kidea edo mintzalaguna izanez gero.

Aurreko edizioetan bezala, gaurtik, apirilaren 23tik, abiatzen da aurten ere kanpaina. Uda aurreko hilabeteak baliatzen dira egitasmoa sustatzeko, liburuen irakurketarako garai egokia baita. Bi hilabeteko iraupena izango du kanpainak eta ekainaren 30era arte egongo da abantailak baliatzeko aukera.

Esan bezala, aurten 24 herritan izango da ekimena, iaz baino 9 herri gehiagotan. Eskualdekako hedapenean zentratu dira antolatzaileak egitasmoa herriean indartzeko helburuarekin, Gipuzkoan eta konkretuki Goierrin, Lazkao, Ataun, Beasain, Zaldibia eta Ordizian ospatuko da. Esan bezala, aurten 24 herritan izango da ekimena, iaz baino 9 herri gehiagotan.

### **Txeke zozketa**

Eskualdekako hedapenean zentratu dira antolatzaileak egitasmoa herriean indartzeko helburuarekin: kanpainak iraun bitartean hilean behin 30 euroko txekea zozketatuko da, parte hartzaleen artean.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, lau pauso eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausoa: hartu euskarazko liburu bat udal liburutegitik, eraman etxera eta irakurritz gozatu.

Amaitutakoan itzuli, bete irakurle fitxa eta erosketa-txartela hartu liburutegian.

Hirugarrena, liburudendan % 25 merkeago erozi beste edozein liburu (euskarazko elkartearren bazkide bazara % 50 merkeago).

Azken pausoa, oparitu lagun bati, edo zeure buruari, zalantzak gabe, merezi duzu eta!